

ROOTS, AUZOEN BERRONERATZE SISTEMIKORAKO EUROPAKO PROIEKTUA

Posted on 20/11/2025 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [New European Bauhaus](#), [Urban Living Lab](#)

NAIDEREk eta [Errenteriako Udalak](#), 14 bazkideko nazioarteko partzuergo batekin batera, HORIZON-NEB-2025-01-REGEN-01 Europako deialdirako ROOTS (Regenerative Open Operations, Tools & Standards for Neighbourhood Systemic Regeneration) proposamena aurkeztu dute. Hautatua izanez gero, ekimena datozen hiru urteetan garatuko da, eta Galtzaraborda eta Europako beste auzo batzuk hiri-eskalan aplikatutako diseinu birsortzailearen erreferente bihurtuko dira.

ROOTSek auzoak eraldatzeko modu berri bat proposatzen du: ebidentzian oinarritua, herritarren parte-hartzeak bultzatua eta erosotasunean, biodibertsitatean, uretan, energian eta ongizatean neur daitezkeen emaitzetara bideratua. Proiektua Galtzarabordan kokatutako Urban Living Lab baten inguruan egituratzen da, herritarrak, tokiko enpresak, administrazioak eta unibertsitateak elkarrekin sortzeko eta esperimintatzeko etengabeko prozesuan konektatuko dituenak. Erakusle nagusi horri Dublin eta Matera gehitu behar zaizkio hiri jarraitzaile gisa, metodoa hainbat testuinguru klimatiko eta administratibotan baliozkotzeko aukera emanez.

Partzuergoak konponbide birsortzaileei buruzko katalogo europarra garatuko du, bai eta udalei eragin-adierazleetan, bizi-zikloaren kostuetan eta karbonoari, urari, barne-osasunari eta biodibertsitateari buruzko ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduko dien tresna operatibo bat ere. Gainera, ROOTSek datu irekiak, dashboard publikoak eta erreplikazio-eskuliburuak argitaratuko ditu, beste hiri batzuek ikuspegia har dezaten zerotik abiatu gabe.

Proposamena bat dator New European Bauhaus-en balioekin — edertasuna, iraunkortasuna eta inklusioa —, eta auzoen birsorkuntza sistemikorako Europako estandar bihurtu nahi du, tokiko nortasuna errespetatuz eta jada bertan bizi diren pertsonen eguneroko bizitza hobetuz nola esku hartu erakutsiz.

